BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN KARATULA, GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAN EUSKARA-ESKOLAK EMATEKO ZERBITZUEN ERRENTAMENDUAREN KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURARI DAGOZKIONAK.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS Y CARÁTULA DE LAS CONDICIONES ADMINISTRATIVAS PARTICULARES DEL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE SERVICIOS PARA LA IMPARTICIÓN DE CLASES DE EUSKERA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkideei eta langile ebentualei euskara-eskolak eta hizkuntza-trebakuntzako eskolak ematea.

1.- OBJETO DEL CONTRATO:

Impartición de clases de euskera y de capacitación lingüística en euskera a los junteros y junteras y al personal eventual de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

2.- ORDUTEGIA ETA ESKOLA-EGUTEGIA.

Eskolak astelehenetik ostiralera emango dira, urtean hamaika hilabetez. Abuztuan ez da eskolarik izango.

Ordutegia aldatu egingo da ikasleen beharren eta disponibilitatearen arabera; hala, hilabete bakoitzean desberdina izan daiteke. Eskolak 8:00ak eta 15:00ak bitartean emango dira, eta ikasturte bakoitzean ordutegia eskola-eskaeren arabera zehaztuko da. Salbuespen gisa, zerbitzua arratsaldez ere eman ahal izango da.

Ikasturte akademikoa irailean hasiko da. Ikasturtearen eskola-egutegia egingo da, kontuan hartuz Batzar Nagusien bilkura-aldia bai eta hizkuntza-trebakuntza beharrak ere.

2.- HORARIO Y CALENDARIO LECTIVOS.

Las clases se impartirán de lunes a viernes, durante once meses del año. El mes de agosto no será lectivo.

El horario de clases será variable en función de las necesidades y disponibilidad de los alumnos y alumnas, de manera que podrá ser diferente por meses. Estará comprendido entre las 8 horas y las 15 horas, y en cada curso académico el horario se concretará en función de la demanda existente. Excepcionalmente, el servicio podrá ser prestado también por la tarde.

El curso académico dará comienzo en el mes de septiembre. Se elaborará el calendario lectivo del curso teniendo en cuenta el periodo de sesiones de las Juntas Generales y las necesidades de capacitación lingüística.

3.- IRAKASLEGOA

Eskolak emango dituen irakaslegoak trebakuntza-lanetarako behar den moduan espezializatuta egon beharko du.

Irakaslegoak berbera izan beharko du kontratuak irauten duen bitartean. Salbuespen gisa, ordezkatu ahal izango dira, arrazoiak behar den moduan justifikatuta.

4.- BETEBEHARRAK

Hasieran, ikasle bakoitzari proba bat egingo zaio, zer maila dagokion zehazteko.

Taldeak ikasleen ezagupen-mailaren eta disponibilitatearen arabera finkatuko dira.

Eskolak eman eta horretarako material egokia erabiltzeaz gain, asistentziaren kontrola ere egin beharko da; horretarako, hilero parte bat egingo da, eta han adierazi emandako ikastorduak eta eskoletan izan den asistentzia.

Bestalde, eskolen errendimenduari buruzko bi ebaluazio-txosten egingo dira: bata, ekainaren bukaeran, eta bestea, abenduan. Ikasle bakoitzak lortutako maila adierazi beharko da.

3.- PROFESORADO.

El profesorado que imparta las clases deberá estar debidamente cualificado en tareas de capacitación.

El profesorado deberá ser el mismo durante la vigencia del contrato. Podrá ser sustituido excepcionalmente por causas debidamente justificadas.

4.- OBLIGACIONES.

A cada nuevo alumno o alumna se le hará al comienzo una prueba para determinar el nivel que le corresponde.

Los grupos para las clases se establecerán en función de los niveles de conocimiento y de las disponibilidades de aquellos.

Además de impartir las clases y de hacer uso para ello del material apropiado, deberá hacerse un control de asistencia, para lo cual se elaborará mensualmente un parte especificando las horas lectivas impartidas y la asistencia a las clases.

Se realizarán, asimismo, dos informes de evaluación sobre el rendimiento de las clases, uno a finales de junio y el segundo en diciembre. Deberá especificarse el nivel alcanzado por cada alumno/a.

5.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Prozedura ireki erraztua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 159. artikuluaren arabera.

6.- LIZITAZIOAREN AURREKONTUA.

55 euro clase-ordu bakoitzeko, zergak eta joan-etorrien kostua barne.

Urteko aurrekontua 46.000 eurokoa da eta, hartaz, kontratua indarrean dagoen epealdiko urteko gastua ez da kopuru hori baino gehiagokoa izango.

Lizitazioaren orotariko aurrekontua 138.000 eurokoa da. Urtekako banaketa honako hau izango da:

- 2021eko iraila eta 2022ko uztaila bitarteko ikasturte akademikorako: 46.000 euro.
- 2022ko iraila eta 2023ko uztaila bitarteko ikasturte akademikorako: 46.000 euro.
- 2023ko iraila eta 2024ko uztaila bitarteko ikasturte akademikorako: 46.000 euro, kontratuaren luzapena onartuko balitz.

5.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN:

Procedimiento abierto simplificado, según lo dispuesto en el artículo 159 de la Ley de Contratos del Sector Público.

6.- PRESUPUESTO DE LICITACIÓN.

55 euros por hora de clase, incluyendo impuestos y gastos de desplazamiento.

El presupuesto anual es de 46.000 euros, de manera que el gasto de cada año de vigencia del contrato no podrá superar dicho importe.

El presupuesto global de la licitación es de 138.000 euros, cuyo desglose por años será el siguiente:

- 46.000 euros para el curso académico septiembre 2021-julio 2022.
- 46.000 euros para el curso académico septiembre 2022-julio 2023.
- 46.000 euros para el curso académico septiembre 2023-julio 2024, en el supuesto de que se aprobase la prórroga del contrato.

7.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Eskaintza ekonomikoak ikastordu bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztu beharko du.

Era berean, eskaintzan zenbat ikastordu sartzen diren ere zehaztu beharko da, eskainitako ikastordu bakoitzaren zenbatekoaren arabera.

Eskolak emateko eskaintzen den irakaslegoaren curriculuma eta proposamen akademikoa aurkeztu beharko dira.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Euskaltegien Erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen egiaztagiria.
- Erantzukizunezko adierazpena, I. eranskineko ereduaren arabera.
- Erantzukizunezko adierazpena, eskaintza ekonomikoak indarrean dauden lan-arauak, bete beharreko lan-hitzarmena barne, betetzen dituela ziurtatuz.

Bi gutunazal itxi eta bananduetan aurkeztu behar dira proposamenak, baldintza partikularren pleguak ezartzen duenaren arabera.

7.- PRESENTACIÓN DE OFERTAS:

La oferta económica deberá concretar el importe correspondiente a cada hora lectiva.

Asimismo, deberá concretarse el número de horas lectivas que se ofertan, en función del importe referido en el párrafo precedente.

Se deberá presentar el currículum del profesorado que se proponga para impartir las clases, así como la propuesta académica.

Deberá aportarse, asimismo, la siguiente documentación:

- Certificación de la inscripción en el Registro de Euskalteguis.
- Declaración responsable según el modelo que figura en el anexo I
- Declaración responsable de que la oferta económica cumple las disposiciones de la normativa laboral vigente, incluyendo el convenio aplicable.

Las propuestas se presentarán en dos sobres diferenciados y cerrados, según lo que se dispone en el pliego de condiciones particulares.

8.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaintzak aurkezteko epea 15 egun naturalen barru amaituko da, oinarri hauek Gipuzkoako Batzar Nagusietako Kontratugilearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epealdiaren azken egunak bat egingo balu larunbat, igande edo festa egun batekin, epealdiaren bukaera-eguna laneguna den lehenengo egunera atzeratuko litzateke.

8.- PLAZO PARA PRESENTAR LAS OFERTAS

El plazo para presentar ofertas finalizará a los 15 días naturales contados a partir del día siguiente a la publicación de estas bases en el Perfil del Contratante de las Juntas Generales de Gipuzkoa. Si el último día del plazo coincidiera con sábado, domingo o día festivo, la fecha de término del plazo se trasladaría al día hábil inmediatamente posterior.

9.- ZERBITZUA EMAN BEHAR DEN LEKUA

Gipuzkoako Batzar Nagusiak.

Miramon pasealekua, 164. Donostia.

Telefono-zenbakia: 943.244906.

Posta elektronikoa: idazkaritza@bngipuzkoa.eus

9.- LUGAR EN EL QUE SE HA DE PRESTAR EL SERVICIO.

Juntas Generales de Gipuzkoa.

Paseo Miramón, 164. Donostia/San Sebastián.

Teléfono: 943.244906.

E-mail: idazkaritza@bngipuzkoa.eus

10. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, egun bat ezarriko da BI zenbakiko gutun-azala irekiteko, zeina enpresa lizitatzaileei jakinaraziko baitzaie.

10. APERTURA DE PROPOSICIONES:

Tras la finalización del plazo de presentación de ofertas se fijará un día para la apertura del sobre DOS, que será notificado a las empresas licitadoras.

11.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da ezartzen.

11.- GARANTÍA PROVISIONAL:

No se establece.

12.- BEHIN BETIKO BERMEA

Ez da ezartzen, ez delako beharrezkoa prestatzioa beteko dela ziurtatzeko.

13.- ORDAINTZEKO ERA

Banku-transferentzia, dagokion faktura aurkeztu ondoren, hilabeteroko aldizkako-tasunarekin.

14.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LUZAPENA EGITEKO AUKERA.

Kontratuaren indarraldia 2021eko irailean hasi eta 2023ko uztailaren 31n bukatuko da.

Urtebeteko luzapen bakar bat egin ahal izango da, 2023ko irailetik 2024ko uztailera, baldin eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako kontratazio organoak horrela erabakiko balu espresuki.

12- GARANTÍA DEFINITIVA:

No se establece porque no resulta necesario para garantizar el cumplimiento de la prestación.

13.- FORMA DE PAGO:

Transferencia bancaria tras la presentación de la factura correspondiente, con periodicidad mensual.

14.- DURACIÓN DEL CONTRATO Y POSIBILIDAD DE PRÓRROGA.

La vigencia del contrato se iniciará en septiembre de 2021 y finalizará el 31 de julio de 2023.

Cabrá la opción de una sola prórroga de 1 año, de septiembre de 2023 a julio de 2024, siempre y cuando así lo acuerde expresamente el órgano de contratación de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

15.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1.- Prezioa (eskola-ordukoa): % 55.

100 puntuen gainean puntuatuko da, eskaintzaren beherapena bider 200 eginez kasu bakoitzean. Eskaintzaren batek % 50eko beherapena gaindituko balu, eskaintza onenari 100 puntu emango litzaizkioke eta 0 puntu lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari, eta gainerakoa interpolatuko litzateke. Hau da:

- Bmax ≤ % 50 bada → Puntuak = 200 x B
- Bmax ≥ % 50 bada → Puntuak = 100 x B / Bmax

Baliokidetzak:

B= Beherapena: baloratzen den eskaintzaren diferentzia portzentuala lizitazioaren oinarrizko aurrekontuarekiko.

Bmax = Beherapen maximoa.

Onartutako eskaintzen batezbestekoaren % 10 baino txikiagoak diren proposamen ekonomikoak anormalki baxutzat jo ahal izango dira.

15.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN:

1- Precio (por hora lectiva): 55%.

Se puntuará sobre 100, multiplicando 200 por la baja de la oferta a puntuar, salvo que alguna oferta supere la baja del 50%, en cuyo caso se otorgará los 100 puntos a la mejor oferta y 0 al presupuesto base de licitación y se interpolará el resto, es decir:

- Si Bmax ≤ 50% → Puntos s/100 = 200 x B
- Si Bmax ≥ 50% → Puntos s/100 = 100 x B/Bmax

siendo,

B= Baja: Diferencia porcentual de la oferta a valorar con respecto del presupuesto base de licitación.

Bmax = Baja máxima.

Incurrirán en posible oferta anormalmente baja aquellas proposiciones económicas inferiores en un 10% al promedio de las ofertas admitidas.

2.- Proposatu duten irakaslegoaren curriculuma eta eskarmentua: % 45.

100 punturen gainean baloratuko da, irizpide hauen arabera:

- 65 puntu, gehienez, erakunde legegileetan euskara-trebakuntzako ikastaroak edo eskolak ematen izandako esperientziagatik: 10 puntu emango dira urteko, urtean gutxienez 800 ordu eman badira, edo zati proportzionala, emandako ordu-kopurua adierazitakoa baino txikiagoa izan bada.
- 25 puntu, gehienez, administrazio-erakundeetan euskara-trebakuntzako ikastaroak edo eskolak ematen izandako esperientziagatik: 5 puntu urteko, aurreko atalean ezarritako irizpidearen arabera.
- 10 puntu, gehienez, erakunde pribatuetan euskara-trebakuntzako ikastaroak edo eskolak ematen izandako esperientziagatik: 2 puntu urteko, aurrez ezarritako irizpidearen arabera.

2.- Currículum y experiencia del profesorado propuesto para la prestación del servicio: 45%.

Se puntuará sobre 100, conforme a los siguientes criterios:

- 65 como máximo por la experiencia de impartición de cursos o clases de capacitación lingüística en euskera en instituciones de naturaleza legislativa. Se otorgarán 10 puntos por año si se han impartido al menos 800 horas, o la parte proporcional si la docencia impartida ha sido inferior a la cifra señalada.
- 25 como máximo por la experiencia en impartición de cursos o clases de capacitación en instituciones de naturaleza administrativa, a razón de 5 puntos por año según el criterio establecido en el anterior apartado.
- 10 como máximo por la experiencia en impartición de cursos o clases de capacitación en entidades privadas, a razón de 2 puntos por año, aplicando igualmente el criterio establecido anteriormente.

16.- KONTRATAZIO-MAHAIA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-mahaia: Batzar Nagusietako kontratazio-mahai orokorra.

Kontratazio-organoa: Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaia.

16. MESA DE CONTRATACIÓN Y ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

Mesa de contratación: la mesa general de contratación de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

Órgano de contratación: Mesa de las Juntas Generales de Gipuzkoa.